

Bizikidetza: zertaz hitz egiten ari gara?

Aniztasunaz eta kohesioaz hitz egiten badugu ezinbestekoa da *bizikidetza* aipatzea. Kontzeptu hau halamoduzko *mantra* bilakatu da maila politiko eta kulturaleko diskurtsoetan, dituen esangurak eta horien ondorioak zehazki azalerratu gabe, ordea. Akatsok hiru motatakoak izaten dira. Lehena abiapuntuari dagokio. Bizikidetzaz hitz egiten da kontuan hartu gabe kontzeptuaren erabilerak berak adierazten duela gatazka bat dagoela oinarrian. Hau da, *ahaztu* egiten da *zergatik* hitz egiten ari garen bizikidetzaz. Zehatz-mehatz, noren arteko bizikidetza lortu behar da?

Bigarren akats bat izaten da bizikidetza aipatzea parekoen arteko harremana balitz bezala. Esan liteke akats hau *testuinguruari* dagokiola. Hemen ahaztu egiten da bizikidetzaz hitz egitera behartuta gaudela gure arteko diferentziak daudelako; berdinak ez garelako, alegia. Ideologia desberdinak ditugu, kultura eta hizkuntza desberdinak, ... eta abar. Akats handia da hori, duda barik, zeren eta bizikidetza eraikitzeari ekin ahal izateko, euskal gizartearen barne diferentziak ulertu behar dira. Ulertu eta onartu, ondorio guztiekin.

Eta ondorio horiek *kudeatzeari* dagokio hirugarren akatsa. Tentazio handia egoten da *tabula rasa* batetik abiatzeko: Denok gara herritarrak, denok gara berdinak. Gure identitateak –erlijiosoa, nazionala, kulturala...- kontu pribatuak dira. Kosmopolitismoak eta errepublikanismoak egiten dute hori. Baina nazionalismoak ere akats bera egiten du. Euskal nazionalismoak euskal *gizartea* euskal *nazioarekin* parekidetzen duenean eta espainiar nazionalismoak abertzaleen aldarrikapenak *antidemokratikotzat* jotzen dituenean.

Egun euskal gizarteak duen erronka handienetako bat da barne diferentziaren onarpena eta kudeaketa. Hezkuntza sistemak berebiziko protagonismoa har lezake zeregin horretan, euskal herritartasun demokratikoaren oinarriak sendotuz.